



Jaiak

Asteburua jai giroz jantzi da Arratzun, Muxikan eta Sukarrietan

BUSTURIALDEA, 2



Sukalki usainez betetako herri bazkarian borobildu dituzte herriko jaiak

AJANGIZ, 3

Hiru egunetan zehar, itsasoa herriratu du 30. Arrain Azokak

● Bego Gangoitik hunkituta jaso du Hegaluze Saria, eta konfiantza eta taldelana nabarmendu ditu

● Jendetza batu da 30. Arrain Azokan, arrantza sektorea bistaratzuz

BERMEO, 4-5

● Nadia Nemeh Bermeoko alkateak azokaren «osasun ederra» nabarmendu du irekiera-ekitaldian



Bego Gangoiti bermeotarra Hegaluze Sariagaz, bariku eguerdian. ALEX URIARTE ATXIKALLENDEN

Lekeitioko Udalak ezingo du sistema berria ezarri bi aparkalekutan

LEKEITIO, 7

Hamalau urtetan udalaren ardurapean egon diren eta Ispasterre bidean dauden bi aparkalekuak Bizkaiko Foru Aldundiaren jabetzakoak direla jakinarazi dio aldundiak udalari.



Jendetsua eta arrakastatsua izan da Allende Salazar Herri Eskolaren 50. urteurreneko jaia

GERNIKA-LUMO, 3



Antxoa Eguneko salmahaietako bat. GARAIA PAGOLA URRIZA

Antxoa Eguna, indartsu

ONDARROA, 6

500 kilo antxoagaz, 4.500 pintxotik gora saldu dituzte Ondarroako 23. Antxoa Egunean. Antxustegi familiak jaso du Zilarrezko Antxoa, eta eskerrak emateagaz batera, ondarea zaindu egin behar dela azpimarratu dute senitartekoei, «Ondarroa ekoizlea izan baita arrantzan, baina zaintzailea ere izan behar duelako». Era berean, ondarea, izaera zein paisaia zaintzeko mezua zabaldu dute, «denena eta denentzako».



TDT eta antena parabolikoak, atezain automatikoak eta bideo-atezainak. Instalazioa, erreparazioa eta mantentzea.

627 260 434
tandemgernika@gmail.com
Gernika-Lumo